



E t x e

h e l d u

e s k u t i k

Etxe kantariaren (**Iñaki Etxezarraga**, Berriz, 1984ko maiatzak 24) musika jarduna 2005ean hasi zen, maketa argitaratzearekin batera. Etxe bere kabuz hasi zen maketa eskuetan zuela, eta bidea egin zuen. Etxek bere tartea osatzea lortu zuen Euskal Herriko musikaren esparruan. Ahots lodi hura sendo sartu zen gure panoraman eta, erakargarria iruditu zitzaigun Etxe kantariaren proposamena. 2007ko udaberrian lehen diskoa iritsi zen eta bidea egin zuen *Bidea eginez* diskoarekin. Etxe kantaria ez da inoiz bakarrik ibili; bere kantuak eder eta itxurazko poztasuna ekarri zigun. Taldearen jitea eta bakarlariaren arteko uztarketa da bere rocka. Aspaldiko musikariaren oroitzapenak zetozkigun Etxe bezalako musika-proposamena entzutean. Ez dela denbora luzea Euskal Herrian izandako garaiak etortzen zaizkigu burura. Rocka, popa eta bakarlariaren haize boladari segida ematen dio Etxe kantariak, bere taldearen laguntzarekin beti.

Etxe kantariaren bigarren diskoak (*Heldu eskutik*) gure arreta harrapatu nahi du. Eskua luzatzen digu, gurekin egin nahi du bidaia. Norberak bestearen beharra nola sentitzen dugun adierazten digu. Horregatik, Etxe kantariak *Heldu eskutik* diskoa utzi digu esku artean. 2009ko uztailla, abuztua eta irailean zehar grabatu, nahastu eta masterizatu da Berrizko **Estoldetan** estudioan. **Jon Olabarriaga** izan da soinu teknikaria eta ekoizpen lanak **Iñaki Elortzaren** eta Etxeren artean egin dituzte. Bi laguntzaile ospetsu izan ditu diskoak: alde batetik, **Roberto Mosok** (Zarama) "Ametsak betetzen" abestian abestu du eta, bestetik, **Anje Duhaldek** "Lurralde bakarra" abestian ahotsak sartu ditu.

Etxe kantariak rocka eta popa sartu ditu osagai nagusi bezala bere diskoan, baina joera eta bidea rockera doaz. Etxe rockeroagoa bihurtu da. Kantuen sentimenduak rockzale bihurtu du. Musikaren bidea esparru rockerora eraman du. Etxe kantariak kantuei erantsi dien pisua eta nortasuna rockaren bihotzean iltzatuta daude. Etxe kantariak bere taldearen beharra aldarrikatu digu bere bigarren lan honetan. Taldeari bere izena jarri dio, nortasuna, ordea, taldezalea da. Etxe hazi egin da. Etxe kantariaren bigarren diskoak (*Heldu eskutik*) rock garaikidearen trazak ditu. Indarra, kemena, joa, eta samurbera. Kantu alaiak, biziak, emankorrak. Hala eta guztiz ere, ezin zaio tristeziaren ukitu bat ukatu diskoari. Diskoak badu gazi-goza bidea. Alaitasunak eta tristeziaren arteko batuketak, ordea, poza dakar, pozarren ozta. Bizitzaren poza malko tantekin ziprztindua. Negarra eta malkoa bizitza beraren handitasuna adierazteko. Bideak elkarrekin egiten prestatuta daude. Bideak bukatu bezain laster hasten du berriro ibilbidea eskutik helduta. Heldu ez da lotu. Heldu gurekin, zatoz, goazen denok batera. Etxe kantariak bizipoza txertatu nahi digu baina tristeziatik irakatsi dezakeguna poztasunarekin harro egotea da. Malenkonía apur bat kantuetan indarrak batzeko eta rock kementsua biribiltzeko. Etorikizunari besarkatuta, iragana ahaztu gabe. Funtsezko rocka.



Heldu eskutik diskoak rockaren alaitasuna dakar. Tenpo erdiko eta abesti leunetan (sasi baladetan), ordea, malenkonía.

Kantu alaiak egitea bilatzen nuen, aurreko diskoan baino azkarragoak eta rockeroagoak. Baina badaude, zoritxarrez, kantu tristeak ere. Dena dela, orokorrean disko bizia eta alai dela esango nuke.

Maitasunez jositako abestiak: maitasuna lagunei, ondokoei, herriari.

Maitasuna oso hitz zabala da. Nik herria maite dut, musika maite dut, nire gitarra maite dut, lagunak maite ditut, joan berri zaidan anaia maite dut. Horiei guztiei idatzi dizkiet kantuak.

Mikel Laboa ez da aipatzen baina kantu batean gorazarre egiten diozu. Kantuen indarrak erakarri zaitu?

Bai. Iazko abenduan hasi nintzen disko berrirako kantuak prestatzen, eta, Laboaren heriotzaren berri jakitean, pentsatu nuen hurrengo diskoan bere omenez kantu bat sartuko nuela. Beti gustatu izan zaizkit haren abestiak.

Etxe: ahotsa eta gitarra
Lander Petralanda: bateria
Christian Martin: baxua
Andoni Dominguez: gitarra

ritxi aizpuru (2009ko azaroaren 3a)